

LEKEITXIOKO ALBISTEAK

LEKEITIO



AGUSTIN ARRIEN

LEKEITXIOKO ALBISTEAK

GABON ZORIONTSUAK

- -Gabon-jaiak urreratzean, gure irakurle guztiai eta euskaldun guztiai opa dautsegu zoriona.
- Zoriona arrantzale ta itxaskariai, zoriona baserritar eta langietako langilleai.
- Zoriona gaisoai ta ezinduai, zoriona espetxeratu ta erbesteui.
- Zoriona gabon-gaba etxean eta bakez igaroko dabenai, zoriona zergaitik edo agaitik urrun dabilzanai.
- Zoriona errigile ta politikariai, zoriona erritar zintzo ta baketsuai.
- Zoriona gurasoai, zoriona seme-alaba ta aitita-amamai.
- Zoriona Eleizako arduradunai, zoriona Barri ona gaurko arazoan argi lez jarri nai daben guztiai.
- Zoriona erriaren alde burrukalari diranai, zoriona isiltasunean herri-lana jakintza-saillean egiten dabenai.
- Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean gogo oneko gininai.

AGUR URTE ZAR

- Toki guztietan agur sutsua egin dautsoe Urte zarrari, ta ondo etorria be bai barriari.

Baiña Txina'n lako agur ta ondoetorrik ez dot uste iñon be egin dagikeonik. Bilbao'n eta beste alderdi askotan "baporeak" (itxas-ontziak) txistu joka agurtzen dabe zori txar edo zori on asko ekarri dautsen Urte zarra, eta txistu jota artzen dabe Urte barria be.

Baiña Txinan bapore barik egiten dabe dana: Argi-ontxiak biztuten dabez, igesik doan Urte zarrari argi egin dagioen. Eta, etxeko krixeteta ta zulo guztiak orriz itxi ondoren, danak oerutzen dira. Baiña, gau erdian, amabiak entzun orduko a^urtzen dabez barriro orri areik, eta, izugarrizko sutargia eskuan arturik, txapleruak bota ta bota ibiltzen dira, ta kalerik kale-rik kale eresi (musica) jo ta jo.

Onegaz, uste dabe, Jainkoak, pozturik, Urte barri on bat jaritxiko dautsela.

LEKEITIOKO XEHETASUN GEOGRAFIKOAK

- Badakizu gure itsasoaren izena euskeraz ?

Erantzuna: KANTAURI ITSASOA

- Badakizu Euskalerriko kapitaleak zeintzuk diran?

Erantzuna: BILBO - DONOSTIA - GAZTEIZ - IRUÑEA -
BAIONA - DONIBANE GARAZI eta MAULE.

- Non dago gure Lekeitio ?

Lekeitio Bizkaiko kostaldeko ekialdean dago.

Bilbora - 55 Km. dago

Gernikara -22 " "

Donostira -72 " "

- Gure Lekeitio, ze mendien oinetan kokatzen da?

Otoio eta Lumentza mendien oinetan dago.

- Zein ibaiak kokatzen dau beren urak itsasora gure inguruan ?

Erantzuna : LEA ibaiak.

- Eta onek urak zein tartean isutzen ditu?

Erantzuna : Isuntza eta Karraspio hondartzean artean,
eta ezker aldean SAN NICOLAS irla utzita.

- Ze klima, daukagu gure inguruan?

Erantzuna: Klima epela eta itsasoaren ganetik
10 m.ra dago.

- Biztanleari dagokionez, zeinbat biztanle ditu ?

Erantzuna : gutxi gora behera.

- Zelan bizi da gure erria ?

Gaur egun turismo, eta zerbitzuak, zerrategiak, arrantza eta arrain-konserbak dira iharduera nagusiak, azken biok krisialdian daude baiña.

- LEKEITIOKO HISTORIA

Lekeition gizaki bizi zeneko lehen datuak Gerra Zibil aurrekoak dira.

Nortzuk egin eban onek lanak?

Barandiaranek, Lumentza Kobazuluko aztarnalegia eskabatu zutenekoak.

Lumentzak GOI PALEOLITIKOTIK kultura erromatarrera arte irauten duen kultur ikuspegi zabala erakisten zuen 60. hamarkadan.

- Noiz asten da Lekeitioren historia ofiziala?

1.325 urtean asten da.

Orduan, María Diaz de Haro, Bizkaiko Andereak fundazio karta eman zion Lekeitioko elizateari.

- Gero zer gertatuzan ?

Hiribildu bihurtu zan herritxoa eta zenbai onura jurídico, merkatak, fiskal, militar, eta baita erlijioso ere eskuratu zituen.

- Zer egizuen Karta horrek?

Kartak herriko mugak ere ezarri zituen, eta eurok zirela-eta burruka ibili ziren alboko elizate eta jauntxoek olagizonekin.

- Zein erregek egin zuen Lekeitioko fundazioa eta ze urtetan jaiotzen ziren?

Alfonso XI, ak.
Karta 1.334'an.

Onela, Lekeitioko herriari autonomia zabala ematen zion administrazionaren kudeaketan euren foro edukitzeak.

Alan, Alkateak batzarburu egin, erabakitako dekretuak onartu eta euren kalitatezko botoa zela-eta errejidoren arteko istiluak ebazten zituzten.

Baiña, epaile ziren bereziki.

- Santa Maria elizako atari guzakiak

Kartak elizaren patronatu ematen zion uriari.

Udal ordenantzek Lekeitioko bizitza komunitarioaren atal guztiak arautzen zituzten; gizartekoak, ekonomikoak, erlijiosoak, eta moralak.

Badakizu noiz idatzi zen udal ordenantak?

Ez dakigu noiz jaso zen, baina Bizkaiko zaharrenek direlakoan daude.

- Zelako aberastasuna ekarri eban herrira karta hone?

Kostaldean egoteak guztiz baldintzatu zuen Lekeitioren ekonomia, arrantza eta nabigazioa buruzko abantailen jabe baitzen.

Elizaren ondoan eraiki eta konpontzen ziren itsasuntziak, kaleetan jostunek, zapatagileak, buztinlariek, eta zilargilek zituzten tailerrak.

Baite ere, emakumeek linogintzan ziharduten esportazio txikietarako ginoan.

Etxeko ekonomi ortutxu, solo eta mahastietako ortuari eta fruituek osatzen zuten.

Arrantzako arloak herriaren ekonomia antzinetik.

- Badakizu Lekeition, 1.595'an lortu zala beste SU , haundi bat?

Igualdeguitik, Beascocalerarte, Dominikako Conventu, Plaza Gamarra, ta eliza ondoren.

Baina horretaz aparte, 1.735'an fundatuzan herria, 325 etxe eta 480 familiarekin.
- Badakizu noiz fundatu zan, Lekeitioko faroa?

1.862'an.
- Badakizu senbat harmarri (eskudu) daukazan Udalak beren aurrekaldean (fachadan).?

Iru.-

Erdian, " armas reales de la corona imperial"

Ezker aldekoan, "Señoriokoa"

eta Ezkumaldean, " Herriko simboloak"
- Noiz egin zan, Otoyoko, deslindea eta amejoramientoa?

1.933'an

Orduan amaitu ziran 4 gizaldiko goraberak herritar artean.
- Badakizu noiz eruan zan ura etxeetara?

1.904'an
- Astilleroak erraka bi alboetan egon ziran.

Lekeition, navioak euki zun, eta lenengo Castellako armadean herritar asko parte artu zuen, Sevillako konkistan.

Baite ere, 1.482'an Napoleseko defentzan.
- Udalen laguntzak.-

XIX,ko hasieran, Lekeitioko Udalak, lagundo egite eban, herriko neskari, eskolea emotea.

Horretarako 100/120 ducadu ordaindu eban, ardoan impuestorekin irakasle bat ordainduz.

- Badakizu noiz inauguratu zan Uribarren Hospizioa ?

1.871'an , 15 pertsona nagusiakin.

Baiña, 1.882'an D.Pascual Abaroak proposamen bat egin zuen hospital barri bat egiteko ta orretarako utzi zuen 500.000 ptas. alboko herritarrentzat ere bai.

- Eta noiz akordatu zen bide bat egiteko Carraspioko ondarrera?

1.899'an.

- Eta 1.928,an, zer gertatu zan?

Bidea egiteko faro Santa Catalinararte,

- Badakizu, 1.896'an pentsatu zan treh bat egiteko Lekeitiotik Gernikara?

Horretarako enpresa bat gertatu behar zan. Herriak, 20%, Diputazioak, 7.000 ptas. kilometro, eta beste diruak obligacionerekin, 4% completatu.

Baiña, Gobernuak beste eskaintza bat egin zuen, Tranbiaren projektuarekin , 50% gastu ordainduta.

Askanean, irugarren projektu barri bat sortu zan.

Baiña, gastu handiarekin ahaztuta lotu zan.

Eta, gauza horrek pasa ondoren, autobusak ipintzeko pentsa zuen, 1.907'an.

Gente txiroak saldi kotxeak erabiltzen zuen.

- Herriko Telegrafoa.

1.863'an eskatu zan Gobernazio Ministeriori , bulego telegrafo bat sabaltzea.

Udean, Udal etxean ipintze zaben telegrafo probisional bat, erregeak herrira etorrikeran.

Baiña, askanean, 1.881,'an benetan finkatu zan, Telegrafo definitiboa.

Posta bulegoa (Correos)-

Ez da aintsiñakoa.

XIII, garren gizaldian, astean baten, Bilbotik eta Durangotik hasi ziren.

Bilbora, astean egiten zan.

- Badakizu noiz elkartu zan Ondarruko ta Lekeitioko bidea?

1.870/80 'an.

- Badakizu noiz aprobatu zen Avda. D.Pascual Abaroa, luzatzeke?

1.888'an.

Baiña, bakarrik Basoalderararte.

Beluago, luzatu zan Talararte.

- Juzgado arloan, 1.853'an herriak eskatu zuen Isabel II, ri 1^a instantziako auzitegi bat gertatzeko, baita ere cabeza de partidp lortzeko, baina gernikarrak, galeratu egin zuen.

- Eta orain herriko argiak.-

1.860'an ipiñi zuten, 30 farol.

1.863'an gaseko argia, ipintzeko asmoa euki eban herriko agintariak, petroleo oliogaz.

Askanean, argia elektrikoal, 892' ipiñi zuten.

- Eta zer gertatu zan Telefonoagaz. ?

1.916'an finkatu zan.

- Aduana, arloan, 1.850,'an gure portuko aduana lortu zan Bermeoko ta Plentziko antzera.

- Badakizu, Oleta auzoan, zerlako fabrikak egon ziran?

Altos Hornos, fabrika bat zortu zen, Oleta auzoan, burdiña elaboratzeko, eta baita Gizaburuagan beste fabrika bat lortu zan "hierro dulce" modura utensilio menagerako.

- Noiz dira San Pedroak?

San Pedroak ekainaren 29tik uztailaren 1era bitartean ospatzen dira Lekeition.

Ekainaren 29an, Mesa Nagusiaren ostean, San Pedroren prozesioa egiten da Santa Maria elizatik porturaino. Bertan, santu beraren irudiaren aurrean, zeremonia bitxia egiten da.

- Zer da kilin-kalakoa?

Hau da, santuaren irudia daroatenek santua uretara botatzekoa egiten dute, ur aldera eraginez santuari. Zerbait teoria dago zeremonia honen jatorriaren gainean. Batzuetan santua uretara jausi da.

Arrantzan laguntzeko-edo zer ikusia duen zeremonia-tzat dago.

- Eta zer dakizu zuk Kaxarranka dantza'ren arloan?

Ondorik, antigualeko dantza egiten da.

Zortzi arrantzalek sorbalda gainean eusten dipten kaxa baten gainean egiten du dantzan dantzariak.

- Eta zerlako janzkera erooten du dantzariak?

Janzkera berezi-berezia du: fraka, alkondara eta praka zuriak, zapia sama inguruan eta krabelina ojalean daroatza; baita txistera eskumako eskuan eta San Pedroren insigniadun banderatxo gorria eskerrekoan ere.

- Non egiten zan dantza ori?

San Pedroren irudipean egiten du dantzan.

Gero, kaleetan zehar dabil, gaur eguneko Arrantza-leen Kofradiako presidentearen etxe aurrean, Udaletxe aurrean eta plazan eginez berriro dantzan.

- Eta noiz jaio zan dantza berezi hau?

Antzinatik dakigu zeremonia honen berri, XV, mendetik gutxienez, eta honako jatorria dauka:

Antzina kofradeek maiordomo bi aukeratzen zituzten urteko irabaziak begiratu, zaindu eta banatzeko.

Kofradiako ondasun eta dokumentoak kaxa batean gordetzen ziren, eta ekainaren 30ean maiordomo zaharraren etxetik maiordomo berriaren etxera aldatzen zen kaxa handikiro.

Kaxa hauxe gordetzen da Kofradian eta gaur egun dantzariak beroren gainean egiten du dantzan.

- Eta gaurko janzkera antzinako moduan eroaten dabe?

Antzinako janzkera ez zen gaur bezalakoa .

Dantzariak San Pedro sinbolizatzen zuen, eta alde banatan, San Andres eta San Juanenak egiten zizuzten gizon bi zihoazen.

Antzezpen (representazio) honek istilu gogorrek eragin zituen eliza eta arrantzale artean XVII, mendean eta ez zen baretu (laisatu) harik eta zibil jantziak erabiltzen hasi ziren arte.

Istilu hauxengatik ezagutzen da hain ondo Kaxarrankaren jatorria.

- Ze jai, da San Pedro Txiki?

Ekainaren 30ean "San Pedro Txiki" eguna ospatzen da erromeria jendetsuan Talan edo olatu-apurtu-lekuan, eta herriko musika bandaren kalejira alai batek ematen dio amaiera erromeriari.

- Eta zer dakizu "San Pedro Baltzaren " jaiagaz?

Uztailaren lean " San Pedro Baltza" eguna da eta Tortola Kale eta Beheko Kaleen bitartean ospatzen da erromeria, Santuaren irudiaren aurrean.

dauko

- Ze signifikatu etimologiki Lekeitio edo Lequeitiok?

Batzuek " lecayos o lacayos" etik datorrela.
Norbaitek, herriaren izena datorrela LEKU-ITUA,
o LEKU-ITXO (lugar ahogado o cerrado) tik, baiña
Urđiola jaunak destolestu (dobla) egiten du, honela:

KAI ala KEI = puerto (donde se fondean las
embarcaciones),

LE ala LA = arena, o sea puerto de arena,
eta bezte modu batera, Sabino Aranan asmoan

LEA-KAI-TIO

o puerto de LEA, herriko itsasarren moduan (LEA).

- Badakizu " Emperatriz Zita " ze denboran egon zan finkatuta
herrian?

1.924/30'era.

Baiña, 1.936'arte utsirik egon zan Palazioa, gerra sa-
soian.

Palazioak hainbeste usaba euki eban.

Gaur egun, enpresa pribatu bat da jabe.

- Badakizu zer gura dau ezan herriko eskudoko itzak?

Onek dira itzak:

" REGES DEBELLAVIT HORRENDA CETTE SUBJECIT TERRA
MARIQUE POTENS LEQUEITIO"

Enderaz: LEQUEITIO POTENTE PORTIERRA Y POR MAR. VENCIO'
A LOS REYES Y DOMINO A LOS HORRENDOS CETÁCEOS"

Euzkeraz

ERREGE ALTZUAK MENPERATU BALE IZAUGARRIAK
AZPIRATU ITXASOZ DA LIORREZ LEKEITIO BETI
BALARTSU" da.

- Badakizu Cristobal Colonek lehenengo bidaiari Amerika topa-
tzeko laguntasun ospetsua euki ebala?

Ori laguntasun ahundia, Contramestre Chachu)k
(-contracción de ECHECHU) eman zion, eta bezte laguntzaile
batek izenez Domingo de Lequeitio.

- Badakizu, Lekeitiok, antzina, "JOKO BOLO BAT" euki ebala?

1.820, anarolesko tinglau bat ipiñi zuen, txoperakin alboetan.

Bertako irabaziak, Ospitareko gaixoari laguntzeko.

Baiña, 1.857'an bera bota zuen.

- Portuko lanak

- 1.381 etik datorkigu moilak konpontzen hasi ziren lehen barriak eta sasoi hartan itsasadarrean egiten zen portua XV. mendean eraiki zen antziñako moila (NAZA ZARRA eta NAZA BERRIA), eta gaur eguneko portu bzrruan kokatzen zen.

Benetan, portu txikia zen, baiña berriro hondarrez betetzen zenez, ez zegoen behar besteko sakonerarik portuan.

Hondarraren jarioa bidea galerazteko malekoia egin zen.

Erregimen Zaharrean eta XIX, mendean kexa ugari daude portuaren kondizio txarrak zirela eta.

Erdi Aroan eta Aro Modernoan baleak izan zuen garrantzia arrantzan aipatu behar da, bere irudia Lekeitioko harmarran (eskudo) agertzeraino izan ere.

Tradiziozko arrantzan bisigua, legatza, atuna, sardina, antxoa... ere nabarmendu behar dira.

Arrantzaren ikuspegi orokorrean, gorago esaniko eragozpenak eragozpen, Lekeitiok Bizkaiko portuetan bigarren lekua zeukala goraiatu behar da Bermeoren osten 1.500 eta 1.900 bitartean.

Baiña, XX, mendean Ondarroak hartu zion aurrea.

- Zenbat metro dauzkate Aitzgorrik eta Ernio'k?

Aitzgorrik, 1.544.- Ernio'k 1.072 metro.

- Zenbat erri dira Euskalerrriko zazpi probintzietan?

- 712-

- Zenbat euskaldun gera?

Jaiotzez, zortzi milloi edo, mundo zabalean.

EUSKAL HERRIAN ZEHAR

- Lau honetatik bat da Bizkaiko mendirik altuena.
Badakuzi?

OIZ, Gorbea, Anboto, edo Urkiolamendi?

Erantzuna: GORBEA

Zein da Gorbea mendiaren altuerea?

1.001 - 1.475 - 2145 - 817

Erantzuna: 1.475 m.

Herri honeetatik zein dago Gorbearen magalean?

Galdames, Zeanuri, Karrantza edo Morgea ?

Erantzuna: ZEANURI

Durangaldean bada kantera famatu bat. Zortzi harrobi
daukaz, euki ere. Berau da herriko industriagintza nagu-
sia. Zein da herri hau?

Elorrio - Berriz - Zaldibar - Mallavia -
Mañaria edo Abadiño ?

Erantzuna: MAÑARIA

LURRALDEA TA HERRIA

- Lekeitio, polita zara i
- heldubarriaren esana-
Itasaldean,
lehor-ertzean
urdin eta berde artean.
- Hondartza txairo, portu, mendi,
jokera aukeran Amandarri...
begiak pozik
ikusgarririk
politenak hor ikusirik.
- Heldubarriak ezin jakin
herriaren gogo eta mamin:
azalekoa
ez da nahikoa;
- Zer dozu zerik ederrena?
Andren ta gizonen kemena.
- Alkartasuna
laguntasuna,
lekittaren bihotz biguna.
- Itsasoa baizen emonkor,
arnasa sendoz herri jator;
beti kantari,
begiak argi,
agur-agurka edonori.

(Eusebio Erkiaga, 1979)

IPUIN TXIKI

- Antxinetan
Antxinetan
Lekeitiarra
Otaiora
joan zan.

- Zeozer jakin
gura eban;
kainubeta
zorrotza
eskuan.

- Otaiio
ba daudak
odolik?
esan eutsan
bero-berorik.

- Eta dzat, dzasti
kainubetea
sartu eutsan
Otaiori
gogorrean.

- Lurganean
gorriunea
agertu zan,
Lekeitiarraren
eskua egoan
odoletan.

(Eusebio Erquiaga, 1983)

AURTENGO NEURTITZAK

- Edertasun bila dabil
gehientzat gizartea;
bada, orain, apaindu-beharra i
bai soineko, bai etxea.
- Etxebarrua dotore
zeinek ez dau jarri gura ?
Horretarako bada, inor be
ez da diruaz ardura.
- Kaleko horma zikinak,
ostera, ez ziran eder,
ta garbizale dan gazteria
ez da izan nagi ez alper.
- Etxe eta kaleak garbi
hori herriaren jasa;
ta garbirik arrantzu-ontziak
garbirik kaia eta naza.
- Horma-farolak polito
zahar-barria alkartu,
kale-izen aldakuntzaren bat
ez jat atsegin gertatu.
- Bostehun urte inguru
-Beascocalea" zana
ez dogu beheko, ez barrena;
ikusi paper lehena.
- Beaskoa bizkai-berba
esanguraz egokiak
orainarte lez begirunean
ondotxu dau merezia.
Ez murriztu hiztegiai

AURTEN AURTENGOA

- Etxetik nago begira
gure eleizaurre barrira;
bazter politak politagotzen
hor datoz lanak harira.

- Eleizaurreko bidea
harlanduz ta argiz betea
aspaldietan zakar egoen
barriro be, dotorea.

- Jaunaren etxea eder
ederragorik ez ezer
lekittar maite antxinakoak
hori susmatu eben laster.

- Kanpantorrea zutunik
ezagutu zuk eta nik,
kanpai ezbardin durunditsuez
hainbeste gauza esanik.

- Udako egun luzeak
nun dabiz atunzaleak ?
Ondoren ona izango al dau
hegaluze kostereak.

- Sarantolinak ganean
barrakak aurtean Atean;
munduko andrak eta gizonak
esperimentu artean.

(Eusebio Erkiaga, 1988)

MASTA PUNTAKOA

- Igaz igazko ta aurten aurtengoa
abadeen moilako masta puntakoa.
- Marragazko kaltzerdi lodiak antziña,
hondarragaz batean ibilera fiña.
- Ez "mastearen zehar" ta bai mastan zehar,
horixe da jokoa, hori, Lekeitiar.
- Daukon koipea kendu masta lodiari,
apur apurka ekin, eta itxi garbi.
- Hondarra mazi mazi, kaltxerdi azpian,
oinak txirrist gehiago egin ez dagian.
- Zapi zuria dago masta puntan tente,
haren bila gogotsu bata eta beste.
- Bide estua dau-eta, gorakoa dan gatx,
arrapatzaile askok dzanga edo dzapart.
- Tente joan behar da, tente mastan zehar,
hori da jasekoa, hori, Lekeitiar.
- Koipea kendu ahala gero ta gorago,
hondarra maza maza, oina sendoago.
- Eea halakoren baten monor muturrera,
eskuagaz oratu, ta bota barrura.
- "Itsasora jausi zan gure Kaltzapintto,
pozik geratu nintzan ez zanean itto".

(Eusebio Erquiaga, 1992)

AGUR JAUNAK

- Soinuz beteriko berbeta
erabili izan dau aspaldian
lekeitiar jatorrak,
eta ez jako etxeko egiten
telebistako albistalari batzuen
mintza- tonu bakarra
errearen zirrin-zarran antzekoa.
- Ba dira, bai, gure lurraldeetan
berbeta modu eder samurrak;
inori ezer kendu barik
hemengoan euskereak
bere izakeran dau
doinu ta durundi berezia,
kantari kantari.
- Tokian tokiko, hor dira
hizkera atseginak,
baina inori ezer kendu barik
Arranegi inguruetako
berbeta honek
ez dau egiten palt,
ez dakar arrauzirik,
ez dau gogait eragiten.
- Barriketa mamima da,
elkarrentzako soinu bizia,
gora ta behera
dzauan dzauan doian
esatemodo araina,
susikaz egina;
hizkera gozo horrek dau
gure maitemina.

(Enebio Erquiaga 1.993)

ARRANEGIKO ZABALA

- Arranegiko zabala, baketsu,
Itasoaren auzokide zintzo,
zutzat gaur nire neurtitz eta mintzo;
hemen, begira, pozez naiagotzu.
- Bost bide ditugu zeuganatzeko:
Atxabal, Narea kantál-barrenak
ta bi, zeure kale luze horrenak
ta moillakoa, nasai igoteko.
- Aizebean dozu bazter gozoa,
ez dozu iparrrik ez mendebalik
ez dozu hor barruan tabernarik,
ixil manatan gaulehen osoa.
- Lekeitiar nire nobelatxuko
Zuriñe, Arranegiko lorea,
hortxe haren etxe ta atetea;
mutillak, zain, bera noiz agertuko.
- Arranegiko zabal horretara
helduko da Xirido, neska laguntzen
maite-kontuak ixilik esaten,
Zeruan dirdiz keiñuka, aztirra.
- Kaxarrenkeak hortxe be ekiña,
uiuiu zantxo zolien artean,
orduan beti zan arratsaldean,
orduan bai San Pedro egun fiña i
- Kantal barreneko bazter argia,
eguzkia dozu uda nahiz negu;
zeure andra garbien batzar-leku,
umee, maite zeure iturria.
- Arranegiko zabala, goiztarra,
herriko bazter askoren artean
txit minbera zaukadaz bihotzean;
hain dozu zeugan, amesen indarra...

(Eusebio Erquiaga, 1980).

ZINGO TXIKI, ZINGO HANDI

- Zingo txikian igeri ikasten
Ume denporan aurrera,
eta gero abadeen moilan
zapaletik zapalera.
- Zingo txiki ta handiak
hor dira aukeran,
marraixu ta izurdat
bizi euren eran.
- Portu-erdian buia egoan,
Haraino joan ta etorri,
horren hurrengo bildurrik barik
moilatik moilara segi.
- Lehorrean azeri,
itsasoan zarbo...
bizitza rako maixu
hoberik ez dago.
- Olatu bako itsasertzari
makal eretxi ezker
karraspioko olatu bitsak
lantxarakoan ze edero i
- Hostala laster dogu
erdi barriztaurik,
hor egon da aspaldion
hain ganora barik.
- Zortziko handi, zortziko txiki
erdizka aurtengo bertsuak,
anaitasunik samurrenagaz
emon alkarri eskuak.
- Itsasondoan jaio,
ta kresaltzan busti,
zerura igongo dogu
guk kresal ta guzti.

PREZIOAK AGERIAN

- Legeak dionez erakusleihatoko produktuen prezioek agerian egon behar dute.

Bezeroak, prezioak kanpotik ikusteko legezko eskubide osoa du.

Baina, gutxitan gertatzen da hori. Dendariak azkarrak dira eta jendea denda barrura sartzea nahi dute. Horregatik, batzuk, ez dituzte prezioak bistan jartzen, izkutan baino. Beste batzuk, berriz, erdi izkutan jartzen, izkutan baino. Beste batzuk berriz, erdi izkutan jartzen dituzte. Bezeroak, hordea ez du protestarik egiten, ezta gutxiagorik ere. Bata edo besteagatik horrela izaten dira gauzak.

Azken bolada honetan, berriz, gehiago zaintzen da lege hori, Izan here kontsumatzaileen bulegoek informazio ugari ematen dute, eta horren ondorioz, dendariak ere kontu andiz bete behar dituzte arauak.

Dena den, lege horrek bere salbuespena (excepción) ere badu: Produktuak ehun mila pezeta edo gehiago balio badu, ez dago erakusleihatara prezioa jarri beharrik.

MASTA PUNTAKO BANDEREA

- Antzar egunean Masta puntako banderea harrapatzen da.

Badakizu zer egin behar dan horretako?

Parte hartu nahi dauanak nahikoa dau nasta ondoan egotea antzar jaia amaitzen danerako.

Banderea harrapatzen doana tente joango da masta osoan zahar.

Ez da onartuko tatarrez edo jezarrita joatea.

LEKEITIOKO ZEZENPLAZA

- Badakizu gure herrian zezénplaza bat egon zala?
Baiña, zein tokian kokatu zen?

SEAT lantegia egozan lekuan , gaur KONSUM- Gmpo Eroski, Supermerkatuan.

Zezen plaza hau, borabila zen.

Zezenketak ez ziran txantxetakoak, Jainkoak agintzen zituen bezalakoak baizik, pikadero ta guzti.

Horrela, mende honen hasieran 1.901-eko Sanantolinetan " konkretuki.

LEKEITIOKO PERTSONAI OSPETSUAK

- Tokirik eza dela eta herri mugaz kanpo nolabaiteko entzutea izan duten pertsonaiak baino ez ditugu aipatuko.

Pedro Bernardo Villarreal de Berriz (1669-1740).

Ingeniari eta ilustratua, XVIII. mendean argitaratuko " Máquinas hidráulicas de molinos, herrería y gobierno de árboles y montañas "libuaren idazlea.

Juan Maria Altuna (1828-1868).

Musikaria, durangarra jaiotzez baina geure herriari lotu-lotua, parrokiako organista izan zen aldetik. Gure kanposantuan lurperatuta dago. " Gernikako Arbola" himnoaren konposaketan Iparragirreri laguntza eman zion, Iparragirreri laguntza eman zion, Iparragirrek musika jarri ziolarik.

Eusebio María Azkue (1813-1873).-

Nautika Eskolako maisua eta olerkaria, Resurreccionen maisua eta olerkaria, Resurreccionen aita izan izan zen.

Resurrección María Azkue (1864-1951).-

Apaiza, idazlea, publizista, literatua, hizlaria, folklorista, musikoa, linguista eta zenbait idazlanen egilea. " Real Academia Española " ren kidea izan zen eta Euskaltzaindiako Lehendakaria.

Eusebio Erquiaga (1912-1993).- Literatua, olerkaria, nobelista eta hizkaria. Euskaltzaina ere izan zen.

Santi Brouard (1919-1984).

Pedriatra eta politikoa, Bilbako Udaleko alkate-ordea eta Eusko Legebiltzarreko parlamentaria, GAL-ek erahila.

HEGALUZEAREN II. ASTEA

Lekeitio 2.003.-

- Aste onerako Andoni Egañak bertsolari ospetsuak bertso ahuek preparatu du:
 - Batzutan bare bare
hurrena mamutu
zenbaitetan orroaz
hurrengoan mutu
nahiz marinel gisara
urteak burutu
zure sekretu denak
ezin ezagutu.
 - Zurrumbilotik ateratzea
ez da gertatzen hain errez
asko kanporantz abiatzen da
saiatu eta ezer ez.
Holakoetan onena zar den
ikas ezazu mesedez
zurrumbiloak iresten utzi,
gosetia bait da berez...
Kanpora berak jaurtiko zaitu
bere barruko indarrez.
 - Izara zuri eta freskoa
hartuz estalki lanetan
bi hegaluze ohe batean
egizko hurremanetan
elkarri aurre emanda daude
maitemindurik benetan
horrelakorik ez da gertatzen
matrimonio denetan
 - Tripa-zorriak ezin egonda
iritzi zaizkit golkora
ta goilarea pozik sartu dut
kazuelaren hondora
tamalez azkar bistatuz doa
bere barruko ardora
laister kazoa izandakoa
ispilu bihurtuko da.
 - Logela ilunetik
argitara jaio
borobil batetikan
begiratuz iaio
borobil borobilik
ez da zer arraio i
Itsasoaz pentsatuz
jo du hainbat saio...
azkenean kopeta
itsasotu zaio.

(ikusi beste orrialdean)

HEGALUZEAREN II. ASTEA

(bigarren zatia)

- Orain artean ez dut ikusi
halako pizti zabarrik
elikagaia kendu didate
nago haserre samarrik
aizu txapeldun ohartu zaitez
ez zaudetela bakarrik...
hartu piska bat, baino ez dago
dena eramane beharrik.
- Arrantzaleen partilarako
arrainak jarri lehenbaitlehen...
bakoitzak bana edo-ta bina
izango ditu ondoren
bat handiago bat txikiago
dira arrainak nabarmen
arrantzaleetan handi-txikirik
ez baita bereizten hemen
suerteak soilik aginduko du
zein zeinentzat izango den.
- Zimur bakoitza izan daiteke
garai joanaren mira
ta oroiminak eramango du
oso, oso urrutira
itsas mintzeko ardora eta
ilunabarren disdira
aitona honen begiak ere
itsasoari begira
oroitzapenik urrunen haien
bi leize bihurtu dira.

D^a MARCELINA

- MARCELINA ASTOLA ARANAGA " Doña Marcelina " Erandion jaio zen 1.902ko apirilaren 26an eta 1923an hartu zuen Lekeitioko Eskolaurreko Irakasle kargua, oposizioen bidez.

Doña Martzelina Lekeitioko neska-mutikoen maistra izan zen, jubilatzeke edadea iritsi zitzaion egunera arte, 1972ko apirilaren 26a.

Gerra zibilean, Francoren tropak Lekeition sartu ziren egunetik lasterrera, doña Martzelinari kerriko maistraren kargua kendu egin zioten, arrazoi politikoak zirela eta.

Horrela egon zen 1941 eko urtera arte, urte horretan berriro hartu baitzuen Lekeitioko herriko maistraren kargua.

Lekeitioko Udalak omenaldia egin zion jubilatutako egunean.

Doña Martzelinak, bere bizitza osoko apaltasunak eraginda, aldeztu aurretik ezetza eman bazion ere udalaren omenaldiari, Udalak berenari ekin zion, hark berrogeita bederatziretortan Lekeitioko neska-mutikoak hezitzen erakutsi tinkotasuna, Indarra, ahalegina eta interesa eskertuz.

Doña Martzelinaren eskutik Lekeitioko neska-mutiko ia guztiak pasatu dira eta inoiz lo3 izan ditu gela barruan.

LANDAREAK

- Landaretzak zeinbat sail agertzen ditu Euskal Herrian?

Landaretzak, hiru sail agertzen ditu Euskal Herrian: Atlantikoa, Mediterraneoaldea eta Pirineoaldea.

Zelako landare ematen dira Pirineoaldian eta nondik nora?

Pirineoaldean ematen dira pinu beltza eta abetoa.

Anie menditik Orhi mendiraino.

Zein da pagaditan Euskal Herrian aberatsena?

Araba da pagaditan, Euskal Herriko lurralderik aberatsena.

Zein lekutara eroaten da basoetako pinu egurrik gehiena?

Euskal Herriko basoetako pinu-egurrik gehiene paper fabriketara eramaten da zelulosa ateratzeko.

Zergaitik daukagu ondigarren pinu egurra bigarren mailan?

Beharbada, enkofratuak eta paletak egiteko bakarrik erabilzen delako gehienetan.

Zer gehiago egiteko erabiltzen da pinu-egurra?

Pinu-egurrak altzariak, etxeak eta beste hainbat gauza egiteko ere balio du.

Nork landatu du pinu-insignisa Bizkaian?

Karlos Adan de Yarza izan zen, pinu insignisa, Bizkaiko mendietan landatu zuena.

Non aztertzen da egur hau eta nola sailkatu dute egur hau?

Durangoko egurraren zentru teknokoan aztertzen dute. Kalitate desberdin arabera sailkatu dute egur hau.

AITTITA MAKURRA

Orain dala urte asko bizi zan
Lekeition gizon zahar-zahar bat;
il nai eban egin, baiña ezin zan il.
Eta olantxe, baten *salbaje* ondartzara
joan zan eta Amabirjiñeak urten
eutson. Esan eutson agure harek bere
problemea, eta amabirjiñeak erantzun
eutson: “zure etxeko teillatuan
bedarrak azten diranean, orduantxe
ilgo zara”.

Etta gizonak egun guztietan
begiratzan eban bere teillatua, baiña
sekula ez zan bedarrik egoten; eta
halantxe ebillela, egun baten begiratu
eban bere teillatua, eta bedarra asten
ikusit eban. Hori ikusikeran arin-
aringa asi zan *salbaje* ondartzarantz,
baiña isuntza ondartzan il zan, eta
arri biurtu zan.

Eta arriaren izena “aittita makurra”
da.

(Javi Olabarriagak Lekeition batua)

ELEZAKO KANPAI NAGUSIA

- 2.00leko maiatzaren 18an, Gernikatik ekarritako garabi haundi batek lagunduta, Santa Maria elizako kanpai nagusia jaitsi zuten, Valladolid-eko enpresa batean zaharberritzeko.

Kanpaiari zati bat falta zitzaion behe aldean, eta egurrezko uztarria eta guzti kendu zuten kanpaia.

Erromatar tipoko kanpai honek hiru tonako pisua du eta 1,69 metroko diametroa.

Kanpaia jaitsi zutenean hona hemen zertuk inskripzio irakur zitezkeen bere inguruan:

" IO SOI DOINA MARIA DE BVEN PARECER IDEBVENA ECHVRA
MEGOR CANTAINER " eta " ECE CRVCEN DOMINI FVGITE HA
PARARTES VIOAN DE GVEMES MEFECIT ANNO DE 1.618"

2.002ko uztailaren 23an, kanpaia konpondu ostean berriz itzuli zuten Lekeitiora.

Bere lekuan ipintzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu, uztarri berria kanpandorrearen arkutik ez zen ondo sartzen-eta.

Kanpaia berriz jaitsi eta elizapean gorde zuten uztarria egoki-tzeko.

Uztailaren 26 an lortu zuten bere lekuan ipintzea, ondo kostata.

(Iñaki Madariaga Vallek idatsita)

Tercero.- Manifestar un total rechazo a las declaraciones, presiones y amenazas efectuadas por representantes de la SDR ASTILLERO contra personas y órganos de la ACT y de instituciones públicas con ocasión de las diligencias de investigación y controles efectuados.

Cuarto.- Apoyar con firmeza las actuaciones llevadas a cabo por las personas y órganos de la ACT y de las instituciones públicas competentes en ese compromiso común de erradicar cualquier foco de dopaje del mundo de las traineras.

Quinto.- Solicitar, mientras se tramitan los expedientes para depurar responsabilidades, un respeto escrupuloso a la presunción de inocencia de los remeros de la SDR ASTILLERO pues dichos deportistas podrían ser, incluso, víctimas de las maquinaciones de su entorno.

Sexto.- Solicitar a todos comprensión en relación a las limitadas informaciones que la ACT puede proporcionar sobre este tema pues las actuaciones iniciadas siguen su curso y existen datos que todavía no pueden ser revelados.

Junta Directiva ACT

En Donostia – San Sebastián, a 5 de octubre de 2005.

NOTA DE PRENSA DE LOS CLUBES DE LA ASOCIACION DE CLUBES DE TRAINERAS (ACT)

Todos los clubes de la Asociación de Clubes de Traineras (ACT), con excepción de la SDR ASTILLERO, desean a través de esta sencilla nota de prensa pronunciarse sobre la polémica suscitada con el dispositivo de control antidopaje efectuado por el Gobierno Vasco en Hondarribia el pasado 24 de septiembre y a tal efecto:

A.- Apoyar con firmeza las actuaciones llevadas a cabo por las personas y órganos de la ACT y de las instituciones públicas competentes en su labor de control y represión del dopaje en el ámbito de los clubes de la ACT.

B.- Solicitar a los órganos de la ACT y a las instituciones públicas con competencias en materia de control y represión del dopaje que depuren todas las responsabilidades por las infracciones que, en su caso, hayan cometido personas adscritas a la ACT.

C.- Seguir ofreciendo toda la colaboración necesaria en la lucha contra el dopaje pues es la única forma de garantizar el futuro de un remo sano, la limpieza de sus competiciones y la salud de los deportistas.

D.- Lamentar profundamente el daño que está causando a la imagen del remo el comportamiento manifestado desde algunas personas pertenecientes a la SDR ASTILLERO e invitar y apoyar a los deportistas, directivos y demás personas de dicho club para que colaboren en la depuración de responsabilidades.

Clubes ACT

En Donostia – San Sebastián, a 5 de octubre de 2005.

Replies (0)

■ » Nota de prensa ACT « - MasQueRemo - 5/10/2005 20:20

Reply



Name

E-Mail

tomar declaración a los remeros respecto a las solicitudes de autorización de sustancias prohibidas.

6.- A la vista de la negativa de la SDR ASTILLERO a cumplir el requerimiento del órgano disciplinario para investigar, este órgano procedió a remitir las actuaciones a los órganos públicos competentes, cumpliendo escrupulosamente las normas aprobadas en el seno de la ACT y en la legislación deportiva que contempla tal actuación.

7.- El Gobierno Vasco, en ejercicio de sus competencias en materia de control de dopaje, preparó por sorpresa un dispositivo de control de dopaje en Hondarribia y notificó por escrito a los remeros de los clubes que habían solicitado autorización de sustancias dopantes que se iba a realizar un control de dopaje. Tales remeros firmaron una notificación en la que claramente se indicaba el organismo que practicaba el control, los derechos y obligaciones de los remeros.

8.- Todos los remeros de los clubes de la ACT que fueron requeridos, excepto los de la SDR ASTILLERO, colaboraron totalmente en el dispositivo de control realizando las aclaraciones oportunas respecto a sus dolencias y tratamientos.

A la vista de estos datos, esta Junta Directiva de la ACT desea:

Primero.- Felicitar a todos los remeros y clubes de la ACT, con la excepción de la SDR ASTILLERO, por la extraordinaria colaboración que han prestado a los órganos de la ACT y del Gobierno Vasco en el campo de la lucha contra el dopaje. Dicha colaboración resulta imprescindible si queremos que la imagen del remo ante la opinión pública esté asociada a los mejores valores.

Segundo.- Manifestar una profunda preocupación por las constantes negativas y trabas planteadas de forma continua desde la SDR ASTILLERO para que sus remeros colaborasen en el esclarecimiento de los hechos.

3.- El Comité Antidopaje y Control de la ACT, respetando la presunción de veracidad de los certificados médicos con las supuestas dolencias de los remeros, concedió las oportunas autorizaciones (AUT), pero puso en conocimiento del órgano disciplinario de la ACT tal petición masiva de autorizaciones para proporcionar sustancias prohibidas a los remeros de la SDR ASTILLERO.

4.- Tal comunicación escrita al órgano disciplinario se fundó en los siguientes datos objetivos:

a.- La solicitud masiva de autorizaciones afectaba a la totalidad de los remeros de la SDR ASTILLERO que eran alineados en las regatas de la ACT.

b.- Las solicitudes se centraban en la misma sustancia prohibida.

c.- Se justificaban en todos los casos por dolencias similares.

d.- Se presentaban las solicitudes en vísperas de la regata considerada como más importante en la temporada (Bandera de La Concha).

e.- El 70% de todas las solicitudes de autorizaciones (AUT) cursadas por los clubes de remo durante la temporada 2005 corresponde a SDR ASTILLERO y el 30% restante a los 11 clubes restantes.

5.- El órgano disciplinario de la ACT, antes de proceder a incoar un expediente disciplinario y evitar daños innecesarios al citado club y a sus remeros, acordó la incoación de un expediente de información previa al objeto de comprobar si de la solicitud masiva de autorizaciones se podían derivar responsabilidades disciplinarias. Tales expedientes de información previa, previstos en la normativa aplicable, tienen como objeto evitar la apresurada apertura de expedientes disciplinarios sin un mínimo contraste de la realidad. A tal efecto, desde el órgano disciplinario se instó a la SDR ASTILLERO para manifestar día, hora y lugar para

MasQueRemo

5/10/2005 20:20

Host: 80-58-42-107.proxycache.rima-tde.net **IP:** 80.24.208.221
System: Windows 98

Nota de prensa ACT ✕



NOTA DE PRENSA DE LA JUNTA DIRECTIVA DE LA ASOCIACION DE CLUBES DE TRAINERAS (ACT)

La Junta Directiva de la ACT, ante las noticias relacionadas con el dispositivo del control antidopaje desarrollado por el Gobierno Vasco en Hondarribia el pasado día 24 de septiembre, y una vez recabada la información oportuna de los distintos órganos de la ACT y del Gobierno Vasco, desea informar a la opinión pública de lo siguiente:

Publicidad



1.- La ACT, desde su reciente creación, se ha posicionado fuertemente por la lucha contra el dopaje y ha realizado un esfuerzo económico y organizativo considerable para evitar el dopaje en el mundo del remo, garantizando la limpieza de sus competiciones y la salud de los remeros. A tal efecto, se ha dotado de unos reglamentos, de unos órganos especializados, de unos formularios, etcétera, que muy pocas federaciones (de diferentes deportes) disponen en la actualidad.

2.- El 27 de agosto de 2005 la SDR ASTILLERO presentó ante el Comité Antidopaje y Control de Salud de la ACT un total de 16 solicitudes de autorización de uso terapéutico (AUT) al objeto de proporcionar a sus remeros determinadas sustancias que se encuentran prohibidas.

PLAZAKO MUSIKA-KIOSKOA

- Badakizu zerbait kioskoaren historia?

Orain, jakingo dozu:

Lekeitioko Udalak, 1.896.urteko abuztuan izan zuen Osoko Bilkuran baitza eman zion Jose María Basterra arkitektoak aurkeztu zuen herriko plaza barrizteko proiektuari.

Horrez gainera, plaza erdian musika-kiosko bat jartzea ere erabaki zuen, honelako adierazpenaren bidez:

"Un paseo como la alameda de la villa de Lekeitio y una población de la importancia como la que se trata en este país, donde tanta predilección se tiene por la música, no puede carecer de un kiosko donde se sitúe la banda para amenizar el paseo".

Lekeitioko musika-kioskoa egiten 1896an hasi baziren ere, bi zati edo fase izan zituen bere erainkuntzak: lehenean, harrizko oinarria egin zen; eta bigarrenean, urte batzuk geroxeago (1917 an) burdinazko estalkia jarri zitzaion.

LEKEITTIOKO FRONTOIA

- Zer dakizue frontoiaren ganean?

Entzun, orain:

Herriko plazako frontoia bota ondoren, XIX. mendearen amaieran, Santi Brouard kiroldegian dagoena eraiki eta inauguratu zen 1.902ko San Antolin egunean; beraz, gaur egun bete ditu 100 úrte.